
**2025-2026ko EUSKARA IKASTAROAREN
PROGRAMA IKASLEGO
BISITARIARENTZAT**

HASIERAKO MAILA

AURKIBIDEA

1. HELBURUAK	03
2. IKASGAI-ZERRENDAA	07
3. IRTEERAK	15
4. KURTSOAREN PROGRAMAZIOA	23
5. EBALUAZIOA	27
6. BIBLIOGRAFIA	29

1. HELBURUAK

Ikastaro honen helburu nagusia ikasleei euskararen oinarritzko ezagutzak ematea eta euskal kultura ezagutu eta bizitzea da.

Hizkuntzari dagokionez, gaitasunetan oinarritutako helburu orokorrak ezarri dira, Hizkuntzen Europako Portfolioko (HEP) gidak kontuan hartuta:

- Eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertu eta erabiltzea, eta berehalako beharrak asetzera bideratutako esaldi bakunak osatzea.
- Bere buruaren eta besteen aurkezpenak egiten jakitea, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarritzko informazioa eskatzea eta ematea.
- Oinarritzko harremanak izateko gaitasuna edukitzea, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

Helburu orokor hauetatik abiatuta, unitate didaktiko bakoitzean gaiari lotutako hainbat helburu espezifiko ere ezarri dira.

1.1 HELBURU OROKORRAK

ESPARRUA	ARLOA	HELBURU OROKORRAK
ULERTU	ENTZUMENA	- Hitz arruntak eta oso oinarrizko esapideak ulertzea, lasai eta argi hitz egiten badute, ondorengo gaiei buruz: - Familia, lagunak... (pertsonek) - Norbera - Ingurua (Beste batzuk)
	IRAKURMENA	- Hitz eta izen oso arruntak eta esaldi oso errazak ulertzea. Adibidez: - Karteletan - Idazkuntan - Katalogoetan (Beste batzuk)
HITZ EGIN	ELKARRIZKETA	- Elkarrizketetan modu xumean aritzea solaskidearen laguntzaz, hau esandakoa errepikatzeko edo beste modu batean esateko, astiro jarduteko eta adierazi nahi dena esaten laguntzeko prest badago. - Galdera errazak egitea eta erantzutea: - Premia dagoenean - Oso ohikoak diren kontuetan.
	AHOZKO ADIERAZPENA	- Deskribapenak egitea esaldi eta esapide arruntak erabiliz, ondorengo gaiei buruz: - Bizilekua - Jende ezaguna - Beste batzuk

1. 2 HELBURU ESPEZIFIKOAK

UNITATE DIDAKTIKOA	HELBURU ESPEZIFIKOAK
1. UD	1A Agurtzea eta aurkeztea. 1B Nor den eta nongoa den galdetzea eta adieraztea. 1C Datu pertsonalak ematea eta eskatzea.
2. UD	2A Hiri eta herrietako zerbitzu eta hiri-altzariei buruz hitz egitea. 2B Norbaiten edo zerbaiten kokapenari buruzko informazioa eskatzea eta ematea. 2C Lekuak deskribatzea. 4AB Etxea alokatzeko informazioa lortzea eta konparatzea. 4C Etxea janzteko behar ditugun gauzen zerrenda egitea.
3. UD	3A Zure familia eta lagunak nor diren, non bizi diren eta norekin bizi diren adieraztea. 3B Besteen deskribapenak ulertzea eta egitea. 3C Informazio pertsonala ematea eta eskatzea.
4. UD	5A Janariari buruzko gustuak azaltzea. 5B Errezetak egiteko jarraibideak ematea. 5C Osasuntsu jateko aholkuak ematea. 6A Eguneroko erosketak egitea.

* Helburu bakoitzaren kodeek (zenbaki eta letra) testu liburuko gaiei egiten diete erreferentzia.

1. 3 ZEHARKAKO HELBURUAK

Hizkuntzarekin zuzenean erlazionatutako helburuez gain, honako zeharkako helburuak ere finkatu dira, kurtsoan eta gai bakoitzean zehar lantzeko:

ZEHARKAKO HELBURUAK
4.1.1 Euskal kulturaren alderdi ezberdinak ezagutzea.
4.1.2 Euskal kultura zuzenean bizi eta honetan integratzea.
4.2 Ikasleen arteko komunikazioa bultzatzea.
4.3 Kulturartekotasuna sustatzea, klasekideen jatorria klasean ezagutuz eta kontuan hartuz.
4.4 Klasekideen artean talde-lana eta kooperazioa sustatzea.
4.5 IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea eta integratzea ekintzetan.

2. IKASGAI-ZERRENDIA

Guztira lau unitate didaktiko landuko dira, eta hauetan liburuko hainbat eduki integratu dira, aurretik ezarritako helburuen arabera antolatuta. Unitate didaktiko bakoitzean helburu orokorrekin erlazionatuta dauden helburu espezifiko batzuk landuko dira. Helburu espezifiko bakoitzerako Arian A1.1 liburuko gai bat erabiliko da abiapuntu gisa.

Honela, gai bakoitzerako, eduki teorikoetatik abiatuta eta hauek oinarritzat harturik, eduki praktikoetara zuzendutako jarduerak prestatuko dira. Eduki praktiko hauetako bakoitza helburu orokorrak eta zeharkakoak lantzeko pentsatuta dago (hurrengo tauletan helburu orokorren kodeak erabili dira edukiak hauekin duten erlazioa erakusteko).

Irteerak ere unitatearen edukiak lantzeko eta praktikan jartzeko asmoarekin planifikatu dira, eta beraz, hauek ere helburu orokorrekin erlazionatu dira.

1. UD		ELKAR EZAGUTZEN	
HELBURU ESPEZIFIKOAK		1A Agurtzea eta aurkeztea 1B Nor den eta nongoa den galdetzea eta adieraztea. 1C Datu pertsonalak ematea eta eskatzea	
ARLOAK		EDUKI TEORIKOAK	
Hiztegia		Hasierako eta bukaerako agurrak, erantzuteko kortesia formulak. Lanbideak. Pertsonen izen arruntak (gizona, emakumea, mutila, neska, gurasoak, umea, senarra...) Izen-abizenak, helbidea, telefonoa (zenbakiak)...	
Hiztegia		Hasierako eta bukaerako agurrak, erantzuteko kortesia formulak. Lanbideak. Pertsonen izen arruntak (gizona, emakumea, mutila, neska, gurasoak, umea, senarra...) Izen-abizenak, helbidea, telefonoa (zenbakiak)...	
Beste batzuk		Alfabetoa eta fonemak (bokalekoak eta kontsonantikoak). Perpausen tonua.	

2. IKASGAI-ZERRENDAA

1. UD ELKAR EZAGUTZEN		
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
Entzumena	1A Aurkezpenak: lanean, lagun berriekin, klasean, irratian... 1B Izen arruntak eta leku-izen bereziak elkarriketetan. 1C Datu pertsonalak: udalekuetan, erreklamazioetan...	1a. 1.1.1 1b. 1.1.1 1c. 1.1.2
Irakurmena	1A Aurkezpenak egiteko elkarriketak. 1B Izen arruntak eta leku-izenak testuetan. 1C Datu pertsonalak lbigailuen Azterketa Teknikoan.	1a. 1.2.4, 2.3.2 1b. 1.2.2, 1.2.4, 2.3.2 1c. 1.2.4, 3.2
Elkarriketa Ahozko adierazpena	1A Agurrak eta aurkezpen orokorrak klasean. 1B Jaioterriak eman eta ulertu. 1C Erreklamazioetan datu pertsonalak eman. Euskal alfabetoa, fonemak. Aurrez prestatutako aurkezpen pertsonalak egin.	1a. 2.1, 2.2.2, 1.1.2, 4.4 1b. 2.1, 2.2.2, 1.1.2, 4.3 1c. 2.1, 2.2.1, 1.1.4 2.3.3, 4.1.1 2.3.2, 3.2
Idazmena	1A Aurkezpenak eta agurrak: erantzunak eman. 1B Izen eta leku-izenekin esaldiak osatu. 1C Datu pertsonalei buruzko galderak erantzun. Datu pertsonalen fitxak bete.	1a. 3.1 1b. 3.1 1c. 3.2
IRTEERA	Tradizioak eta gastronomia ezagutzea	1.1, 2.2, 4.1.1, 4.1.2, 4.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Autoebaluazioa 7.saioan. Ebaluazio partziala 16. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	12 ordu	

*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.

2. IKASGAI-ZERRENDAA

2. UD HIRIA, HERRIA, ETXEA	
HELBURU ESPEZIFIKOAK	2A Hiri/herrietako zerbitzu eta hiri-altzariei buruz hitz egitea. 2B Norbait/zerbaiten kokapenari buruzko informazioa eskatu/ematea. 2C Lekuak deskribatzea. 4A+B Etxea alokatzeko informazioa lortzea eta konparatzea. 4C Etxea janzteko behar ditugun gauzen zerrenda egitea.
ARLOAK EDUKI TEORIKOAK	
Hiztegia	Hiri eta herrietako lekurik ezagunenak eta leku arruntak. Zerbitzuak eta hiri-altzariak. Kalea, baserria eta errepidea. Adjektiboak. Etxearen ezaugarriak eta bertako etxetresnak.
Gramatika	Non (izen arruntak, erakusleak, lekuzko nozioak eta adberbioak) Ba...rik? Instrukzioak. Orduak. Izena eta adjektiboa, eguraldia. Konparazio perpausak. Aditzak: Behar izan, balio izan, nahi izan, eduki.
Beste batzuk	Fonologia: Bokalak eta kontsonanteak ezagutu eta ahoskatu.

2. IKASgai-ZERREnda

2. UD		
HIRIA, HERRIA, ETXEA		
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
Entzumena	Euskal hirietako toki famatuak. 2A Herri batean dauden zerbitzuak: elkarriketa. 2B Lekuzko-nozioak elkarriketetan: parkean, argazkietan... 2C Telefono elkarriketa: orduak, deskribapenak, eguraldia. 4A Etxea bilatzen: informazio eske telefonoz.	4.1.1, 1.1.3 1.1.3 1.1.3 1.1.3, 1.1.4 1.1.3, 1.1.4
Irakurmena	2A Herriko zerbitzu eta hiri-altzariak karteletan. 2B Errepidean instrukzioak: testu-mezua. 2C Herrialde baten informazio-fitxa. 4B Etxea alokatzen: iragarkiak.	1.2.1, 1.2.2 1.2.4 1.2.4 1.2.1, 1.2.3
Elkarriketa	2B Klean galdezka: hiriko tokei buruzko instrukzioak galdetu eta eman. 2C Hiri edo herri ezberdinak konparatu. 2C Ordua galdetu eta eman. 4B Bikoteka bakoitzaren etxeari buruzko elkarriketa.	2.1, 2.2.1 2.1, 2.2.2, 2.3.1 2.1, 2.2.1 2.1, 4.4, 2.3.1
Ahozko adierazpena	2A Klean dauden hiri-altzarien azalpena (irudia deskribatu). 2B Argazki bat deskribatu. 2C Jaioterriaren deskribapena. 4A Etxe baten planoak deskribatu.	2.3.1 2.3.1, 2.3.3 2.3.1, 4.3 2.3.1, 2.3.3
Idazmena	2A Galderazko esaldiak erantzun. 2B Lekuzko nozioekin esaldiak idatzi. 2C Postal bat idatzi. Jaioterriaren deskribapena. 4C Pisukidea lortzeko iragarki bat idatzi (etxea deskribatu).	3.1 3.1 3.1, 4.3 3.1, 4.4, 4.5
IRTEERA	Bisitak museoetara eta tradizioetara.	2.1, 2.2.1, 4.1.1, 4.1.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Ebaluazio partziala 16. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	16 ordu	

*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.

2. IKASGAI-ZERRENTA

3. UD		FAMILIA ETA LAGUNAK	
HELBURU ESPEZIFIKOAK		3A Zure familia eta lagunak nor diren, non bizi diren eta norekin bizi diren adieraztea. 3B Besteen deskribapenak ulertzea eta egitea. 3C Informazio pertsonala ematea eta eskatzea.	
ARLOAK		EDUKI TEORIKOAK	
Hiztegia		Ahaidetasun-harremanak. Izaera, itxura fisikoa, jarrerak eta aldartea. Egoera zibila. Zenbakiak (10-100)	
Gramatika		Noren (izen arruntak eta izenordainak) + preposizioak. Norekin (izen arruntak eta bereziak). Nork (izen arruntak, izen bereziak eta izenordainak). Nolakoa / nola. Bizi izan aditza, ukan aditza.	
Beste batzuk		Informazio pertsonala eskatzeko galderak.	

2. IKASGAI-ZERRENDAA

3. UD FAMILIA ETA LAGUNAK		
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
Entzumena	3A Ahaidetasuna ondorioztatu elkarriketetatik. 3B Pertsonen identifikazioa deskribapenetik: elkarriketa, irratia... 3C Erantzungailuan mezua: pertsonen zaletasunak.	1.1.1 1.1.1 1.1.1, 1.1.4
Irakurmena	3A Familia argazkien deskribapena. 3B Amonaren urtebetetzearen ospakizuna. 3C Pertsonen informazio pertsonala.	1.2.4, 2.3.2 1.2.4, 2.3.3 1.2.4, 2.3.2, 3.2
Elkarriketa	3A Familia bati buruzko elkarriketa: Nor, non, nongoa... 3B Jarrera eta aldatzei buruzko galdera-erantzunak. 3C Fitxa pertsonalak konparatu kideatasunak lortzeko.	2.1, 2.2.2, 2.3.2, 4.4 2.1, 2.2.2, 2.3.2, 4.4 2.1, 2.2.2, 3.2, 4.4
Ahozko adierazpena	3A Zuhaitz genealogiko bat azaldu. 3B Deskribatu zure klasekidea (izaera eta itxura fisikoa).	2.3.3, 4.3, 4.4 2.3.2, 4.3
Idazmena	3A Bizi izan aditzarekin esaldiak osatu. 3B Adinak eta pertsonen ezaugarriak esaldietan. 3C Bikotekidea bilatzeko web-orrirako fitxa pertsonala sortu.	3.1 3.1 3.2
IRTEERA	Hirian mugitzea: eraikin turistikoak eta interesguneak.	1.1.4, 1.2.1, 2.1, 2.2.1, 2.3.3, 4.1.1, 4.1.2, 4.2, 4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Autoebaluazioa 22. saioan. Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	12 ordu	

*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.

2. IKASGAI-ZERRENDAA

4. UD ON EGIN!	
HELBURU ESPEZIFIKOAK	5A Janariari buruzko gustuak azaltzea. 5B Errezetak egiteko instrukzioak ematea. 5C Osasuntsu jateko aholkuak ematea. 6A Eguneroko erosketak egitea.
ARLOAK	EDUKI TEORIKOAK
Hiztegia	Janariak, otorduak eta jakiak. Janariaren prestaketaren inguruko aditzak, neurriak... Osasuntsu jatearen inguruko hiztegia, aditzak... Denden izenak, salerosketen inguruko galdera-erantzunak, produktuak.
Gramatika	Deklinazioa: Nori (izen arruntak, bereziak, erakusleak), nor-nori (gustatu) Aditzak: Nahiago izan, behar da/dira, aditza + nahi izan. Testu antolatzaileak, denborazko perpausak eta maiztasuna. Nominalizazioa: -t(z)ea, -t(z)eko. Kausazkoa..

2. IKASGAI-ZERRENDAA

4. UD ON EGIN!		
ARLOAK	EDUKI PRAKTIKOAK	HELBURUAK
Entzumena	5A Menuak: Hotelean,unibertsitatean, jatetxean... 5B Errezetak prestatzeko instrukzioak eta neurriak. 5C Lo egiteko aholkuak: irratsaioa. 6A Betiko dendetan erosketak egiten.	1.1.3, 1.1.4, 4.1.1 1.1.4, 4.1.1 1.1.4 1.1.3, 1.1.4, 4.1.1
Irakurmena	5A Etxera eramateko janaria: telefono-elkarrizketa. 5B Urdaiazpiko-kroketen errezeta. 5C Otorduak. 6A Eguneroko erosketetarako elkarrizketak.	1.2.3, 1.2.4 1.2.4, 4.1.1 1.2.3, 1.2.4, 4.1.1 1.2.4
Elkarrizketa	5A Menu bateko platerak konparatu eta zer jan erabaki. 5C Elkarri aholkuak eskatzea eta ematea: jateko, ibilaldi baterako... 6A Dendari eta eroslearen arteko elkarrizketa: janaria erosten.	2.1, 2.2.2, 2.3.3 2.1, 2.2.2 2.1, 2.2.1
Ahozko adierazpena	5A Txoko batean bazkaltzeko menua azaldu. 5B Bakoitzaren herrialdeko errezeta tipiko bat azaldu. 6A Errezeta bat prestatzeko beharrezko erosketak planifikatu.	2.3.3, 4.1.1, 4.4 2.3.3, 4.3 2.3.3, 4.4
Idazmena	5A Txoko batean bazkaltzeko menua prestatu. 5B Bakoitzaren herrialdeko errezeta tipiko bat azaldu. 5C Elikadura osasuntsuaren piramidea deskribatu. 6A Produktu eta denda ezberdinak identifikatu eta erlazionatu.	3.1, 4.1.1, 4.4 3.1, 4.4, 4.5 3.1 3.1, 2.1
IRTEERA	Monumentu, leku historiko eta tipikoen bisita.	1.1.4, 1.2.1, 2.1, 2.2.1, 4.1.1, 4.1.2, 4.2,4.4, 4.5
EBALUAZIOA	Ebaluazio jarraia (gelan eta online). Bukaerako ebaluazioa 30. saioan.	
DENBORA	14 ordu	

*Zenbaki eta hizki kodea (1A, 1B..) duten edukiak testu liburuko gaietan agertzen direnak dira.

3. IRTEERAK

Ikasturtean zehar hilean irteera bat egingo da, beraz, guztira lau irteera egingo dira. Irteera hauek ikasleak bizi diren hirian bertan gauzatuko dira. Irteera bakoitza unitate didaktiko batean integratuta egongo da, eta hauen helburua gai horretan zehar landutako edukiak kalean eta inguru errealean praktikan jartzea izango da, euskal kulturari eta gizarteari buruz zuzenean ikasiz.

Irteera bakoitza klase baten baliokidea izango da: unitateko edukiak lantzeko erabiliko da eta bi orduko iraupena izango du. Bakoitzaren aurretik ordubeteko prestaketa saio bat egingo da eta irteeraren ondorengo klasean, esperientziak amankomunean jartzeko eta ondorioak ateratzeko ordubeteko saioak antolatuko dira hiru kanpusen artean, Skype erabiliz.

*Irteeretan landuko diren helburuak edukien tauletan daude.

3. ARABAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

1. Vitoria-Gasteiz: Gasteizko Abasto plaza eta pintxoak dastatzeko aukera hiriko alde zaharrean.

AURRETIK: Euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

IRTEERA: Lehenik eta behin, Abasto plazara joan euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaizkienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu eta osagaiak asmatzen saiatu.

ONDOREN: dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoa) euskaraz idaztea.

2. Vitoria-Gasteiz: Santa Mariako Katedralari bisita egin.

AURRETIK: Santa Mariako Katedralaren inguruko informazioa bilatu Interneten, eta horra joateko tranbia edo autobusa hartu.

IRTEERA: Bisita gidatua egin, katedrala eta ingurukoez gozatuz, xarma eta historia handiko monumentua da.

ONDOREN: bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: zerk erakarri nau gehien?; zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; zer espero nuen bisita egin aurretik?; bete dira nire itxaropenak?

3. ARABAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

3. Vitoria-Gasteiz: Bibat Museoa bisitatu.

AURRETIK: Interneten bilatu Bibat Museoaren buruzko informazioa.

IRTEERA: Bibat Museora gerturatu. Bertan dauden obrak ikusi eta aztertu.

ONDOREN: Esperientzia ikaskideekin partekatzea ikasitakoa komentatuz.

4. Vitoria-Gasteiz: Bisita gidatua Gasteizen

AURRETIK: hiru lekuetako monumentu, museo edo leku tipikoenen gelan ikerketa bat egitea, gainerako gelei aurkezteko (adibidez, museo arkeologikoari buruz).

IRTEERA: Ikasleek aukeratutako monumentu edo lekuetatik ibilbide bat egin eta bakoitzak duen esanahi arkitektoniko, historiko eta kulturala azaldu.

ONDOREN: irakaslearen azalpenak, zalantzak eta galderak, informazioa osatzea.

3. BIZKAIKO CAMPUSEKO IRTEERAK

1. Bilbao: Euskal produktu tipikoak ezagutzen Erriberako merkatuan eta pintxoak dastatzen Bilboko Alde Zaharrean

AURRETIK: euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

IRTEERA: Lehenik eta behin, Zazpikaleetako Erriberako merkatura joan euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu eta osagaiak asmatzen saiatu.

ONDOREN: dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoak) euskaraz idaztea.

2. Bilbao: Arkeologia Museoa.

AURRETIK: museo honetan zer aurki daitekeen hausnartzea eta testuingurua ulertzeko aurkituko dutenaren inguruko ikerketa txiki bat egitea Interneten.

IRTEERA: Arkeologia Museoa bisitatu eta museoko erakusketetako informazio garrantzitsua idatzi (historia, mitologia...)

ONDOREN: bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: Zerk erakarri nau gehien?; Zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; Zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; Zer espero nuen bisita egin aurretik?; Bete dira nire itxaropenak?

3. BIZKAIKO CAMPUSEKO IRTEERAK

3. Bilbao: Artxandako funikularra igo.

AURRETIK: Bilbo eta inguruko eraikinei buruzko informazioa bilatu. Artxanda non dagoen kokatu eta Interneten funikularra .

IRTEERA: Funikularrez igo Artxandara eta Bilbok eskaintzen dizkigun Euskal paraje paregabeaz gozatu.

ONDOREN: Ikasitakoa ikasgelan komentatzea, txangoan gehien gustatu zaiena aipatuz.

4. Bilbao: Bizkaiko Zubia bisitatu.

AURRETIK: Bizkaiko Zubiko web orrian sartu, non dagoen eta zer den ikusteko.

IRTEERA: Portugaletera heltzean ikasleek herriaren giroa gozatu ahal izango dute eta Euskal Herrian zubi honek duen garrantziaz ikusi, euskal kulturaz ikasiz.

ONDOREN: Ikasgelan esperientzia partekatzea, euskal kulturari buruz ikasi dutena komentatuz.

3. GIPUZKOAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

1. Donostia/San Sebastián: Bretxa azoka eta pintxoak dastatzeko aukera Donostiako Alde Zaharrean

AURRETIK: : euskal gastronomia (euskal produktu tipikoak) eta tabernetan pintxoak jateko tradizioa aztertuko dira. Ohitura horri buruzko bideo edo erreportaje bat ikusiko da giroan sartzeko.

IRTEERA: Lehenik eta behin, Bretxako merkatura joan, euskal produktu tipikoak identifikatzen saiatzeko. Gainera, gehien gustatu zaizkienak erosi ahal izatea, euskara praktikan jarritz. Gero, pintxo-potean ibili. Hor, pintxo ospetsuenak edo deigarrienak dastatu eta osagaiak asmatzen saiatu.

ONDOREN: dastatu duten pintxo baten errezeta (adibidez, patata tortilla pintxoak) euskaraz idaztea.

2. Donostia/San Sebastián: San Telmo Museoa bisitatzea

AURRETIK: museo honetan zer aurki daitekeen hausnartzea eta testuingurua ulertzeko aurkituko dutenaren inguruko ikerketa txiki bat egitea Interneten.

IRTEERA: Museoko erakusketa ikusi eta azalpenak entzun. Erakusketetako informazio garrantzitsua idatzi (historia, mitologia).

ONDOREN: bakarka hausnartzeko galdera batzuei erantzutea: zerk erakarri nau gehien?; zer gustatu zait gehien? Eta gutxien?; zer ikasi dut? Euskal kulturarekin zerikusia duen zerbait ikasi dut?; zer espero nuen bisita egin aurretik?; bete dira nire itzaropenak?

3. GIPUZKOAKO CAMPUSEKO IRTEERAK

3. Donostia/San Sebastián: Igeldo mendia bisitatu.

AURRETIK: Igeldo mendiari buruzko informazioa Interneten bilatu eta argazkiak ikusi.

IRTEERA: Igeldo mendira igo Donostiako kostaldeko paisaiatzat disfrutatuz.

ONDOREN: Argazkiak ikaskideekin partekatzea eta argazkiak euskaraz deskribatzen saiatzea, hiztegi berria ikasiz (mendia, hondartza, paisaia...)

4. Donostia/San Sebastián: Bisita gidatua Donostian

AURRETIK: hiru lekuetako monumentu, museo edo lekuri tipikoenak ikertzea gelan, gainerako gelei aurkezteko (adibidez, San Telmo Museoari buruz).

IRTEERA: Ikasleek aukeratutako monumentu edo lekuetatik ibilbide bat egin eta bakoitzak duen esanahi arkitektoniko, historiko eta kulturala azaldu.

ONDOREN: irakaslearen azalpenak, zalantzak eta galderak, informazioa osatzea.

4. KURTZOAREN PROGRAMAZIOA

Kurtsoaren iraupena: 60 ordu.
Klasearen iraupena: 2 ordu.
Kredituak: 6 ECTS
Ordutegia: Astearte eta osteguna, 13:30etatik 15:30etara *

Unitate didaktiko bakoitzean, helburu espezifiko bakoitza lantzeko klase oso bat (2 ordukoa) erabiliko da. Horrela, unitate didaktiko bakoitzak iraupen ezberdina izango du, honen edukien arabera.

Ordu bi horiek bi zatitan banatuko dira. Lehenengo orduan eduki teorikoak aztertuko dira (hiztegia, gramatika, ahoskera...), eta bigarrenengan, teoria hori oinarritzat harturik, eduki praktikoak landuko dira eguneroko bizitzako egoeretan hauek nola erabili ikasteko: testuak, entzumenezko ariketak, elkarrizketak etab. Behin unitateko edukiak ikusita, ondorengo saioan aktibitate gehigarri bat (bideoak, abestiak, albisteak, jolasak, lehiaketak...) antolatuko da lehenengo, landutako edukia osatzeko, eta bigarren orduan unitateko irteera prestatuko da.

Irteerak klase normal baten iraupena izango du, honen hurrengo klasean lehenengo ekintzan egindakoa bateratuko da hiru kanpusen artean, eta bukatzeko autoebaluaketa edo ebaluaketa saio bat prestatuko da.

Azterketak bigarren eta laugarren unitateen ondoren egingo dira, eta hauen aurretik klase bat ikasitako gaiak errepasatu, osatu edo finkatzeko erabiliko da, ikasleen beharrianen arabera. Horretaz gain ebaluazio jarrai bat ere egin beharko da, hezkuntza pertsonalizatuago batera abiatzeko.

* Jaiegun batekin kointziditu duen klaseren bat errekuperatu behar izanez gero, ordutegiak aldaketak jasan ditzake.

** Kurtzorako ezarritako helburuak ahaztu gabe, irakasle bakoitzak programaketa berrantolatu eta egokituko du bere ikasleen arabera (ikasteko era eta erritmoa, zailtasunak, interesak, beharrianak...).

4.1 KRONOGRAMA

DATA	PROGRAMAZIOA
Irailak 9 - abenduak 18	UNITATE DIDAKTIKOA
Irailak 9	Kurtso hasiera + Ongi etorri!
Urriak 2	1. irteera
Irailak 30 - urriak 30	2. UNITATE DIDAKTIKOA
Urriak 14	2. irteera
Urriak 30	Kurtso erdiko azterketa
Azaroak 4 - azaroak 27	3. UNITATE DIDAKTIKOA
Azaroak 13	3. irteera
Abenduak 2- abenduak 18	4. UNITATE DIDAKTIKOA
Abenduak 11	4. irteera
Abenduak 18	Azterketa finala+ Kurtso bukaera

TUTORETZA SAIOAK: Ikasleen zalantzak argitzeko erabiliko dira, eta unitate didaktiko bakoitzaren bukaerako klasean egingo dira (autoebaluazio edo errepaso saioak). Zalantzak hainbat ikaslek partekatzen badituzte, hauek talde handian argituko dira, eta banakakoak badira, klasekideek lanean jarraitzen duten bitartean irakaslearekin argituko dira. Zalantzak, aurrez-aurre ez ezik, online ere planteatu daitezke Edmodo-n, irakasleari edo klase osoari mezu bat bidaliz.

*Kurtsoan zehar, eta egoerak horrela ahalbidetzen badu, hilean behin irteera bat egingo da, lau guztira.

4.2 METODOLOGIA

Testu liburua: Arian A1.1

Ikasleek kurtsoa aprobetxatu eta proposatutako helburuak lortzeko asmoz, gelan metodologia moldagarri bat erabiliko da. Horretarako, klaseko lehenengo egunetik hasita irakasle bakoitzak bere ikasleen testuingurua, interesak, zailtasunak eta beharrianak behatu eta aztertu beharko ditu, horrela programatutako ekintza eta edukiak

hauen errealitatera egokitzeko. Hau lortzeko, lehenengo elkar- ezagutze saioaz gain, eguneroko behaketa eta kurtso erdiko ebaluazioa eta inkestak ere kontuan hartuko dira.

Klasean bertan, protagonistak ikasleak izan beharko dira irakaslearen ordeztu, eta hauek ekintzetan ez ezik, kurtsoko erabakietan ere parte hartzea sustatuko da ahal den neurrian.

Ikasketa funtzional eta parte-hartzailea bultzatuko da klaseetan, eta hauek irakaslearen irakurgaietan oinarrituta egon ordez, ikasleek jarduera praktikoak egitera zuzenduta egongo dira, metodologia dinamikoak eta estrategia ezberdinak erabiliz, helburuen, testuinguruaren eta eskuragarri dauden baliabideen (denbora, espazioa, materiala...) arabera, horrela ikasleak motibatze asmoarekin.

4.2 METODOLOGIA

Ikasketa autonomoa eta kooperatiboa sustatzeko asmoz, taldekatze moldakorrak erabiliko dira gelan, bakoitza aktibitate mota eta helburu espezifikoetara zuzenduz.

- Bakarka: Idazlanak, berrikusketa ariketak, autoebaluazioak, lan pertsonala, azterketak, entzumen ariketak...
- Bikoteka: Elkarriketak, ariketen konparaketak, berrikuspenak...
- Talde txikietan: Irteeren prestaketa, Skype saioak, jolasak, kooperazio lanak...
- Talde handian: Zuzenketak, eztabaidak, lehiaketak, aurkezpenak...

DENBORA ANTOLAKETA

Bi orduko saio bakoitza (klasean egingo direnak) bitan banatuko da, ordu bakoitzak betekizun bat izango duelarik. Ordu bakoitzean aktibitate ezberdinak planifikatuko dira, bakoitzari denbora gehiegi eskaini gabe, klase dinamikoak mantenduz.

IKT (INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK)

Gaur egungo gizartean egunero erabiltzen diren lez, gelan ere teknologia berriak beste edozein baliabide lez integratuko dira, hauek aktibitate ezberdinak egiteko tresna lez erabiliz.

- Zoom: Materiala partekatzeko, irakasle eta ikasleen artean komunikazioa ahalbidetzeko, zalantzak argitzeko eta tutoretzak bideratzeko erabiliko da.
- Kahoot/Socrative: Lehiaketa formatuko jolasak ahalbidetzen dituzten aplikazioak dira, ebaluaketa txikiak edo errepasoak egiteko oso erabilgarriak.
- Beste batzuk: bideoak, emaila, Drive, web-orriak...

5. EBALUAZIOA

Ikasleen ebaluazioa integrala eta hezigarria izateko asmoz, honek aspektu ezberdinak izango ditu kontuan. Lehenengo eta behin, ebaluazio saio ezberdinak planifikatu dira unitate didaktiko bakoitzaren bukaeran, ikasleek hasieratik beraien aurrerapena ikusteko eta dituzten zailtasun eta beharrianak identifikatu eta hobetzen laguntzako.

Horietatik bi azterketak izango dira, bat bigarren unitate didaktikoaren ondoren (kurtso erdiko azterketa) eta beste bat bukaeran, ikasitako guztia bateratuko duena (azterketa finala). Saio hauetan, helburuetan ezarri diren bost arloak aztertuko dira, lau ariketetan banaturik: Irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamena (elkarrizketa eta ahozko adierazpena neurtzeko). Deialdi bakarra egongo da (azterketa finala).

Bestalde, lehenengo eta hirugarren unitateen ondoren autoebaluazio orduak planifikatu dira, ikasleek beraiek ze egoeratan dauden aztertu dezaten, helburuak, hobetze-neurriak eta beharrianak ezarriz. Autoebaluazio hauek testu-liburuak gai bakoitzaren bukaeran dituen galderetan oinarrituko dira.

Horretaz gain, eta ebaluazioa benetan integrala izan dadin, emaitza soilez gain klaseko eta etxeko eguneroko lana, parte-hartzea eta motibazioa gainbegiratuko dira, besteak beste. Hau guztia txosten batean adieraziko da kurtso bukaeran.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

		%	Puntu irizpideak	Ebaluazio tresna
EBALUAZIO JARRAIA				
Lan pertsonala	25%	Etixerako bidaldutako ariketak egitea = 1.5 puntu		Eguneroko behaketa Ariketak
Jarrera Parte-hartzea	25%	Etxean egiteko idazlanak = puntu 1 (Unitate didaktiko bakoitzeko idazlan bat, bakoitzak 0.25 puntu) Taldeko lanetan aktiboki parte-hartzea = 0.5 puntu Ahozko jardueretan parte-hartzea = 0.5 puntu Irteeretako ekintzetan parte-hartzea = 0.5 puntu Klasean jarrera positiboa erakustea = 0.5 puntu (galderak egin, ikasgelatik kanpo lan egin, Edmodo plataforman parte-hartu, ikaskideak Asistentzia orriak lagundu...)		Edmodo ("asignación" tresna) Eguneroko behaketa Edmodo Asistentzia orriak
AZTERKETAK				
Kurtso erdiko azterketa	20%	Azterketa bakoitzak helburu orokorretan azaltzen diren bost arloak ebaluatuko ditu, lau ariketa erabilita. Azterketa bakoitzeko nota, berez, 10ekoa izango da gehienez, hurrengo ataletan banatuta: 1. Irakurmena: 2.5 puntu 2. Entzumena: 2.5 puntu 3. Idazmena: 2.5 puntu 4. Hitz egitea: 2.5 puntu (elkarriketa eta adierazpena) Azterketek ebaluazioan duten pisua kontuan harturik: Kurtso erdiko azterketa = 2 puntu gehienez (10eko nota = 2 puntu, 5eko nota = puntu 1, etab.) Azterketa finala = 3 puntu (10eko nota = 3 puntu, 5eko nota = 1.5 puntu, etab.)		Azterketa (1)
urriak 30				
Azterketa finala	30%			Azterketa (2)
abenduak 16				

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

* Ebaluazioa eta kalifikazioa:

• **Eskolen % 85era joandako ikasleak:**

Ebaluazioa etengabea eta batutzailea izango da. Programetan zehaztutako atal guztiak baloratuko dira. Beharrezkoa izango da ikastaroa gainditzeko azterketetan ebaluatutako alderdi, zeregin, atal eta gaitasun guztiak gainditzea.

• **Eskolen % 85era joan ez diren ikasleak:**

Kalifikazioa, ikastaroan emandako eduki guztien azken azterketa eginez lortuko da. Ikastaroa gainditzeko, beharrezkoa izango da azterketaren atal guztietara aurkeztea eta bertan ebaluatzen diren atal eta gaitasun bakoitza gainditzea.

* Garrantzitsua da ikasleek kontuan hartzea ikastaro hauetan ez dagoela azterketen bigarren deialdia

BIBLIOGRAFIA

TESTU LIBURUAK:

Erreferentzia liburua: Arian A1.1

Ikaslearen liburua

Entzungaiak (CD)

Erantzunak eta transkripzioak

Liburu osagarria: Bakarka 1

MATERIAL OSAGARRIA

Egunkariak eta aldizkariak:

- Berria
- HABE
- Argia
- Aizu
- Eta Kitto
- Elhuyar
- Zabalik
- Nabarra
- Osatuz

Mediateka:

- ETB1: albistegien atalen grabaketak.
- ETB1: dokumentalen grabaketak.
- Filmak euskaraz.

Ikastaroak eta ariketak:

[www.internet/euskadi.org/
euskara/ega](http://www.internet/euskadi.org/euskara/ega)
[www.pnte.cfnavarra.es/eibz/
ega/index.htm](http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ega/index.htm)
www.ehu.es/azpidazki
www.ehu.es/PAT
www.habe.euskadi.net
www.ikasbil.net
www.ivap.euskadi.net
www.euskaljakintza.com
www.santurtzieus.com
[www.hiru.com /](http://www.hiru.com/)
www.ikasten.net

• Irakurtzekoak:

www.habe.org
www.berria.info
www.aizunet.net
www.armiarma.com

• Entzutekoak:

www.habe.org
www.bertsozale.com
www.eitb.com

• Bilatzaileak:

* AURKI
* KAIXO
* JALGI
* Aurkitu
* Google